

B.8. BERRIZ

B.8.1. San Pedro Legañooko basiliza

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Berrizko Udala

B.8.1. Ermita de San Pedro de Legaño

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Ayuntamiento de Berriz

Sondages in 2010 on the plot of the ancient San Pedro de Legaño chapel uncovered evidence of cemeteries from the Middle Ages and the 19th century. The 2011 and 2013 stages of the archaeological programme provided information about the basic characteristics of the 19th century cemetery and located around twenty medieval tombs of a similar type to those found in Oiz. On the contrary no information of interest has been found relating to the chapel's past history.

Aurrekariak

Berrizko Udalak udalerriko ibilbide ekologikoak gaitzeko proiektua abiarazi zuen 2012. urtean. Haietako bat, Errotatxo-Elizondokoa, Legañooko Arbolar mendiaren oinetako Berrizko San Pedro Apostoluaren basilizarekin lotutako hondakinak dauden lekutik hurbil igarotzen zen. Orduan sei zundaketa programatu ziren leku hau arkeologikoki ebaluatzeko. Haietako bostek ezaugarri ezberdineko bi hilerri bereizteko aztarnak eskaini zituzten, bi hilerrien artean gutxi gorabehera zazpiehun urteko aldea zegoela. Haietako bat Erdi Arokoa zen, eta antza lotura zuen Oizko nekropoliekin, besteak beste, eta Garaiko Momoitioko paradigmaman oinarriturik, burualdean zulatutako estalki monolitikoek ezauzgarritzen dituzten Oizko nekropoliekin. Bigarren hilerria egungo udal hilerria eraiki zuten 1890. urtearen eta San Juan Ebanjelariaren parroquia-eliza hileta izaerako helburuekin abandonatu zuten unearen, XIX. mendeko lehenengo hamarraldiaren, artean kokatu behar dugu.

Berrizko Udalaren laguntza ekonomikoari esker, aztarna horien presentziak aukera eman zuen Legañooko alde honetan programa arkeologiko bat prestatzeko eta sustatzeko. Programa horren helburu nagusia zen leku honetan bat egiten duten hiru elementuen –Erdi Aroko nekropolia, Pedro apostolua gurtzeko basiliza eta XIX. mendeko udal hilerria– historia argitzeko aukera emango luketen datu arkeologikoak biltzea. Inoiz ere ez genuen elementu edo aldi historiko bat lehenetsi, guztiak garrantzitsuak baitziren historia ezagutzeko, batik batik Bizkaiko kristauen hilerrien bibliografian identifikatzen ditugun elizaz kanpoko bi etapen historia ezagutzeko. Hala eta guztiz ere, heme-retzigarren mendeko etapa begiratu zorrotz eta sakonago baten beharrean zegoen agian, Bizkaiko arkeologiak orain arte ez baitio beharrekoko arreta eskaini, ez eta gure kultura ondareari dagozkion kontuak zaintzen dituen administrazio eskudunak ere.

Legañooko alde honetan arkeologikoki jarduteko interesa handitu egin zen udal eta eliz artxiboetan gordetzen den dokumentazioa aztertu eta gero, leku honen aro modernoan eta garaikidean bizi izan zuen historia berreraikitzeke datu baliotsu gutxi batzuk eskaini baitzituzten dokumentuek. Datuak dokumentue-

Antecedentes

En el año 2010, el Ayuntamiento de Berriz promueve el acondicionamiento de itinerarios ecológicos en el municipio, uno de los cuales, el de Errotatxo-Elizondo, transcurría próximo al lugar en el que se alzan unas ruinas relacionadas con la ermita de San Pedro Apóstol de Berriz, localizadas al pie del monte Arbolar de Legaño. Se programaron entonces seis sondeos para evaluar arqueológicamente el enclave. Cinco de ellos dieron resultados positivos, arrojando evidencias que permitían inferir dos ocupaciones cementeriales distintas, separadas entre sí por unos setecientos años. Una de ellas quedaba ligada a la Edad Media, y parecía relacionarse con las necrópolis del Oiz, caracterizadas, entre otros rasgos, y a partir del paradigma de Momoitio (Garaí), por cubiertas monolíticas horadadas en la cabecera. El segundo cementerio refería una ocupación intermedia entre la construcción del actual camposanto municipal, lograda en el año 1890, y el momento en el que se produce el abandono del templo parroquial de San Juan Evangelista con fines funerarios, acontecimiento que se produjo en la primera década del siglo XIX.

La presencia de tales evidencias permitió elaborar y promover, gracias al decidido apoyo económico del Ayuntamiento de Berriz, un programa arqueológico para ese emplazamiento de Legaño. Dicho programa centró sus objetivos en la recuperación de datos arqueológicos que permitieran informar históricamente de los tres elementos concurrentes en el enclave: la necrópolis medieval, la ermita bajo la advocación del apóstol Pedro y el cementerio municipal del siglo XIX. En ningún momento se primó un elemento o periodo histórico sobre los restantes, porque todos ellos resultaban sin duda importantes a efectos de conocimiento histórico, en especial en aquello que atañe al proceso de historiar las dos etapas extraeclesásticas que identificamos en la biografía del cementerio cristiano en Bizkaia. Sin embargo, quizá la etapa decimonónica se encontraba necesitada de una mirada más curiosa y atenta, porque hasta el momento presente no había sido objeto de la debida atención por parte de la arqueología vizcaína, ni de quienes desde la administración competente velan por las cuestiones referidas a nuestro patrimonio cultural.

El interés por actuar arqueológicamente en este espacio de Legaño se vio acrecentado tras el proceso de vaciado de la documentación existente en los

tan bilatzeko lan hori 2011. urterako eta aztarnategi honi begira sustatutako proiektu arkeologikora bildu zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak beren arkeologia ondareari halako balioa emateko interesa agertu zuten udalerriei emandako diru-laguntzari esker eraman ahal izan zen aurrera.

Aztarnategia ondoz ondo etorriko ziren hiru fasetan ebaluatzeko programa prestatu genuen. Hasieran batik bat lekuan zeuden hondakinek zehaztutako espazioan jardungo genuen, bertan eman zieten lur XIX. mendeko bigarren erdialdean zendutakoei. Gero kanpoko eremuan jardungo genuen, Erdi Aroko hilobien aztarnak biltzen ziren aldean. Honenbestez hasi ginen lan arkeologikoetan, 2011. urtean hain zuzen. Lehenengo kanpaina amaituta eten egin zen proiektua, foru administrazioak bertan behera utzi baitzuen diru-laguntzen programa. Finantza-iturri hori gabe eta krisialdi betean murgilduta, 2012. urtean Legaño ez genuen lan arkeologikorik egin. Egoerara egokitu ahal izateko, beste dimentsio bat eman genion proiektuari, eta unean uneko baliabide ekonomikoei egokitutako helburuak eta prozedurak finkatu genituen horrenbestez. Aztarnategiari halako balioa emateko Berrizko Udalak beti azaldu zuen interesak eta agerian egonik hondatu zitezkeen aztarnen aurrean bere-halakoan jarduteko premiak ahalbidetu zuten 2013. urtean lanei berriro ere heltzea. Orduan aztar-nategiaren hegoaldeko sektore bat induskatu genuen, 2010. urteko zundaketetan Erdi Aroko hileta izaerako aztarnak azaldu ziren aldea, hain zuzen.

2011. eta 2013. urteetako kanpaina arkeologikoe-tan lortutako emaitzen berri ematea dute xede nagusi ondorengo lerroek. Horretarako, berex azalduko ditugu Legaño mendiaren oinetan eta garai ezberdinetan instalatu ziren hiru elementuak: baseliza, XIX. mendeko udal hilerria eta Erdi Aroko nekropolia.

San Pedro Apostoluen baseliza

Legaño kontserbatzen diren hondakin arkitektonikoetan eta hondakin horiek mugatutako azaleran lan arkeologikoak bereziki zorrotzak eta sakonak izan diren arren, leku honetan gutxienez XVII. mendeaz geroztik behar duen baseliza da elementu arkeologiko ezezagunena. Segur asko Udalak leku hau hilerri gisa erabiltzeko xedean hartutako erabakian eta eraikinak jasan zuen erabateko birmoldaketan aurkitu behar dugu horren arrazoia, izan ere, egitura erabat aldatu zuten hileta izaerako zeregine berrietara egokitu ahal izateko. Ordurako auri egoeran egongo zen aipatu eraikina, baina iturri idatziek deus ez dute argitzen horren inguruan.

Leku honetan egun dauden hormen barruko aurpegiak irakurketa stratigrafikoa egiteko saio bat egin genuen, horma horiek zimentarrien mailaraino garbitu baitziren, mendebaldeko hormaren atal bat izan ezik, San Pedro baselizaren jatorrizko hondakinak ezagutu nahi baikenituen. Aitzitik, oso kaskarrak izan ziren emaitzak. Hormaren bazter batzuetan izan ezik, esate baterako eraikinaren hego-mendebaldeko

archivos municipal y eclesiástico, puesto que ofreció escasos datos de valor para reconstruir la historia del enclave en su etapa moderna y contemporánea. Esta labor de búsqueda documental formó parte del proyecto arqueológico que se promovió para el yacimiento en el año 2011, gracias al apoyo económico de una subvención de la Diputación Foral de Bizkaia a las entidades locales interesadas en la puesta en valor de su patrimonio arqueológico.

Se programó una evaluación del yacimiento en tres fases consecutivas, incidiendo inicialmente en el espacio definido por las ruinas existentes en el enclave, que habían acogido los enterramientos efectuados en la segunda mitad del siglo XIX, prolongando con posterioridad los trabajos al área externa, donde se concentraban las evidencias sepulcrales de cronología medieval. Con tal idea se dio comienzo a la actividad arqueológica en el año 2011. Tras esa primera campaña, el proyecto quedó detenido, al suspenderse el programa de ayudas desde la administración foral. Privados de esa fuente de financiación e inmersos en plena crisis económica, no se realizaron trabajos arqueológicos en Legaño en el año 2012. Se aprovechó tal situación para redimensionar el proyecto y adaptar objetivos y procedimientos a los recursos económicos que hubiera disponibles en cada momento. El interés que siempre había mostrado el Ayuntamiento de Berriz por la puesta en valor del yacimiento, unido a la necesidad de actuar sin dilación sobre unas evidencias que se podrían deteriorar por su exposición a la intemperie, propiciaron la reanudación de los trabajos en el año 2013, abordando la excavación de un sector al sur del yacimiento, donde se habían localizado evidencias funerarias medievales en los sondeos de 2010.

Dar cuenta de los resultados obtenidos en esas campañas arqueológicas de los años 2011 y 2013 es el objetivo principal de las próximas líneas. Para ello ajustaremos nuestra narración a cada uno de los tres elementos que se instalaron al pie del monte Legaño en diferentes épocas: la ermita, el cementerio municipal del XIX y la necrópolis medieval.

La ermita de San Pedro Apóstol

A pesar de que los trabajos arqueológicos han incidido de manera especial en las ruinas arquitectónicas que se conservan en Legaño y en la superficie que éstas delimitan, la ermita que sabemos existente en ese lugar al menos desde principios del siglo XVII es el elemento arqueológico peor conocido. La razón de ello tenemos que buscarla seguramente en la profunda remodelación que sufrió la construcción cuando el Ayuntamiento decidió utilizar el lugar como camposanto, modificando completamente su fábrica para adecuarla a la nueva función sepulcral. Dicha fábrica, probablemente, se encontraba en estado ruinoso para esas fechas, si bien las fuentes documentales no aclaran nada a este respecto.

Se ha intentado realizar una lectura estratigráfica de los paramentos interiores de los muros actualmente alzados en el enclave, al haber sido despejados hasta su nivel de cimentación, salvo una parte del cierre oeste, con el fin de reconocer restos originales de la ermita de San Pedro. El resultado, sin embargo, ha sido infructuoso. No resultó posible localizar tramos de muros,

angeluan izan ezik, ezin izan genituen aurkitu luzeran edo bertikalean atal handi samarrak kontserbatu dituzten horma tartetean antzeko eraikuntza ezaugarriak. Hormako pieza batzuek, zehazki hareharrizko harlandu txikiek, antzeko ezaugarri morfologikoak ageri zituzten eta antzera landuta zeuden, baina bila zituzten helburuak betetzeko alferrekoak ziren, ausaz banatuta baitzeuden kontserbatutako hormetan barreiatuta, landu gabeko harriekin nahasirik.

Mendebaldeko itxituran baizik ez, itxura batean lehenagoko horma bat fosiltzen zuen eraikuntza zati bat aurkitu genuen. Lehenagoko horma hori ekialdetik mendebaldera luzatzen zen zimentarri baten hondakin txikiari lotua ageri zen lurpean. Hondakin horrek zehaztu lezake XVII. eta XVIII. mendeetan baselizarena bete zuen eraikinaren iparraldeko gehieneko muga; tenpluak oinplano angeluzuzena izango zuen, eta gutxi gorabehera 11,50 x 7 metroko neurria izango zuen. Hegoaldeko itxituraren aurrez aurreko horman bazen eten bat, baina bertako lurpean egindako ebaluazioak ez zuen eraikuntza izaerako aztarnarik bat ere eskaini.

Lan arkeologikoez orain arte ez dute baselizaren egitura eraiki zuten kronologiari buruzko argirik eskaini, eta baselizari buruzko biografia osatzeko aldi ezberdinetako aztarnarik ere ez dugu aurkitu.

Baseliza udal hilerri bihurtuta XIX. mendearen bigarren erdialdean

Behera etortzeko arriskuan zegoen oinplano angeluzuzeneko baseliza xumearen gainean, instalazioa hilerri bihurtzeko XIX. mendeko langileek eraitsi egin zuten iparraldeko horma eta beste leku batean altxa zuten, zabalera hiru metro irabaziz eta horrenbestez 11,50 x 10,50 metroko oinplanoa izango zuen eraikina sorraraziz. Iparraldetik neurri txikiagoko (3,70 x 2,80 metro) bigarren gela angeluzuzen batekin osatu zuten multzoa; gela honek kaperarena egingo zuen segur asko. Luzeran eta zeharrean jarritako beste harlandu txiki batzuk baliatu zituzten arren, batik bat eskantzuetan, landu gabeko harriz eraiki zuten estekadura berri osoa, tartean segur asko Oka ibai hurbiletik ekarritako errekarri asko eta asko. Kaperaren alboetako batean irekitako hutsuneak, harlanduz inguraturiko ateak, egiten zion sarrera hilerriari. Baselizaren iparraldeko horma eraitsi ostean berrerabili zutela uste dugu guk. Antzeko aprobe-txamendua hautematen dugu hilerriaren hegoaldeko itxituran irekitzen den argia emateko baoan, nahiz eta gaur egun bao hori alferrekoa den estalkirik ez duen eraikin honetan.

Barruti handiengan emango zieten lur zenduei, eta barruti hori bi sektoretan banatuta zegoen. Barrutiaren iparraldeko herena hilobien kaxek, hau da, lurpean egindako hilobiek, okupatuko zuten. Hilobi horiek harrizko hormek eratzen zituzten, eta hiru lauzek estalita zeuden, hiruetatik erdikoak zulo bat zuela hilobia ireki ahal izateko. Molde horretako lau hilobi kontserbatzen dira sektorearen erdialdean, kaperako hutsunearen aurrean. Hala eta guztiz ere, kontuan baldin badugu barrutia iparraldetik ixten duen hormaren oinarria zabalagoa dela, beste hormen oinarriak ez bezala, kontuan baldin badugu

con cierto desarrollo longitudinal o vertical, que revelaran rasgos constructivos similares, con excepción de zonas muy residuales de la fábrica, como en el ángulo suroeste de la construcción. Había piezas del aparejo, en concreto sillarejos de arenisca, que presentaban características morfológicas y de labra similares, pero su utilización para los objetivos perseguidos resultaba inútil puesto que se encontraban distribuidas de manera aleatoria por distintos puntos de los alzados conservados, entremezclados con mampuestos.

Solamente en el cierre occidental se localizó un fragmento constructivo que parecía fosilizar una fábrica antigua, asociada en el subsuelo a un exiguo resto de cimentación con orientación este-oeste. Dicho resto podía interpretarse como el límite máximo de extensión septentrional de la construcción que sirvió de ermita en los siglos XVII y XVIII, a la que cabe suponer una planta rectangular de unos 11,50 x 7 metros aproximadamente. En posición enfrentada sobre el cierre opuesto, también existía una discontinuidad constructiva en la fábrica, pero la evaluación del subsuelo en tal punto no arrojó evidencia constructiva alguna.

Las labores arqueológicas no han revelado hasta el momento la cronología en la que se pudo conseguir la estructura arquitectónica de la ermita, ni se han localizado evidencias de fases diferenciadas para su biografía.

La ermita como cementerio municipal en la segunda mitad del siglo XIX

Sobre la sencilla planta rectangular de la ermita arruinada, los operarios del siglo XIX que reacomodaron la instalación para dedicarla a cementerio, demolieron el muro septentrional y lo trasladaron a una nueva posición, ganando tres metros de anchura y obteniendo así una planta cuadrangular de 11,50 x 10,50 metros. Este recinto fue completado, al norte, con una segunda estancia rectangular de menor dimensión (3,70 x 2,80 metros) que cumplió seguramente funciones de capilla. Salvo el uso en la ampliación de algunos sillarejos, especialmente en los esquinales, ordenados a soga y tizón, todo el nuevo aparejo se compone con mampostería ordinaria, en la que se incluye gran proporción de material rodado, procedente con probabilidad del curso inmediato del Oka. El ingreso al cementerio se realizaba a través de un hueco practicado en uno de los muros laterales de la capilla, organizado con sillares. Cabe suponer que fue reutilizado tras demoler el muro norte de la ermita. Similar reaprovechamiento suponemos para el vano de iluminación que se abre en el cierre sur del cementerio, inútil ahora en una construcción carente de cubierta.

El recinto de mayor amplitud fue destinado a enterramientos y quedó organizado en dos sectores diferenciados. El tercio norte de la planta fue ocupado por un encajonado sepulcral, esto es, por sepulturas definidas en el subsuelo mediante muros de piedra que se cerraban con cubierta de triple losa, con perforación para su apertura en la central. Se conservan cuatro de esas tumbas ocupando el espacio central del sector, frente al hueco de la capilla. Sin embargo, el engrasamiento basal de la fábrica que cierra el recinto por el norte, no presente en los otros muros de la construcción; los restos conservados en el subsuelo de una obra de mampues-

kontserbatu diren hilobi-kaxen muga mende-balderantz luzatzen duen landu gabeko harrizko hormaren hondakinak lurpean kontserbatu direla eta kontuan baldin badugu hilerriaren iparraldeko heren horretan hilobiak iparraldetik hegoaldera antolatuta daudela, zenduei leku egiteko egitura hori sektore osora zabaltzen dela uste dugu guk. Nolanahi ere den, kontserbatu diren aztarnak oraingo ez digute kaxetan antolatutako hilobi horietako batzuei begira guk aurreikusitako eraikuntza aldiak, erabilerak eta desmuntatzeak azaltzeko modurik eskaini, ez eta prozesu hori sustatu eta justifikatuko zuten zirkunstantziak azaltzeko ere.

Barruti nagusiaren gainerakoak zuzenean lurzorian egindako ehorzketei egin ziren leku. Zenduak hobiratzeko erabileran bi aldi edo fase bereizten dira, gorpuak bestelako norabidean lurperatuak baitira aldi bi horietan; beheko mailan iparraldetik hegoalderako norabidean daude, goikoan ekialdetik mendebalderako norabidean dauden artean. Goiko maila hori hobe ezagutzen dugu, orain arte burura eramandako lan arkeologikoen xede izan baita. Maila honetan aipagarria da hobien antola-mendu eza, hobiok ez baitute espazio hau modu ordenatuan okupatzen. Hilerria mukuru beteta bide zegoenez, antza Udalak 1880. urtean hartutako neurri «higienisten» ondorioz sortua da alde hori, beste leku batean hilerri berri bat eraiki arte Legañoako hilerriaren erabilera denboran luzatzeko lurra ekarri baitzuten bertara.

Kaperaren barrutia ere zenduak ehorztekoei erabili behar izan zuten. Ildo horretatik, aipagarria da aipatu kaperaren erdiko ardatzaren gainean eraikiriko hilobia. Eraikuntzak eta hilobiaren egiturak pribilegiadunen espazioak iradokitzen dituzte Legañoako hilerrian. Eta hori, zalantzarik gabe, berrikuntza da lehenagoko elizen barruko hilerri gehienen inguruan genekienaren aurrean, horietan hobiratuak gizartean zuen garrantzi handiagoa edo txikiagoa edo haren ahalmen ekonomikoa ez baitzen hain garrantzitsua beren garai-kideentzat, orduko hilobien ereduak ageri zituzten ezaugarri fisikoei bagagozkie. Gainera, hilerria Legañoa eraman izanak agerian uzten ditu zenduen aurreko beste jarrera batzuk, zenduak herritik kanpora lurperatzen hasi zirela egiaztatu baita. Ordura arte luzaroan partekatuta zuten espazio bera biziak eta hilek, lehenik elizaren barrunbean eta gero, XIX. mendearen aurreneko hamarraldietan, parrokiaren kanpoko hormei atxikiriko barrutietan.

Zalantzarik gabe, datozen urteetan oro interresgarria izango da hilerri honen ebaluazio arkeologikoarekin jarraitzea, batetik haren ezaugarriak hobe ezagutzeko aukera izango dugulako, eta bestetik, orain arte Bizkaian behar bezala ezagutzen ez den eta gutxi ikertu den hilerrien aldi jakin bat ezagutzeko egokiera izango dugulako. Legañoako hilobien egitura, XVIII. mendeko elizen barneko hilerri eredu zabalduenetako baten zuzeneko oinordekoa eta 1890. urteko udal hilerri berrian gaitutako obrako hilobien ereduaren aurrekoa izaki, eta bi sektore bereizitan antolatutako nekropoliak, ondorengo urteetan gisa honetako barrutietan nagusituko zen ereduaren aurrerapena izaki, zenduei lur emateko adierazle horiek ebaluatzeraz ez ezik kristauen hilerrien biografian artean ikertu ez diren aldiei begiratzera behartzen gaituzte. Berrizko kasuan, elizaren barruko

to que prolonga hacia el oeste el límite de los cajones sepulcrales conservados, así como la ordenación nortesur de los enterramientos en ese tercio norte del cementerio, llevan a proponer una extensión de la estructura funeraria a todo el sector. No obstante, las evidencias conservadas no nos han permitido explicar por el momento las fases de construcción, uso y desmantelamiento que suponemos para una parte de las sepulturas encajonadas, así como tampoco las circunstancias que favorecen y justifican el proceso.

El restante espacio de este recinto principal acogió enterramientos que se realizaban directamente en la tierra. Se han detectado dos fases diferenciadas de uso inhumatorio, que parecen singularizarse por la distinta orientación de los cuerpos: norte-sur para el nivel inferior, este-oeste para el superior. Este nivel superior nos resulta mejor conocido, puesto que es el que ha centrado los trabajos arqueológicos realizados hasta la fecha. Destaca en él la falta de ordenación de las sepulturas, que cubren el espacio disponible de manera desigual. Su creación parece obedecer a las medidas «higienistas» que se adoptan en 1880 desde el Ayuntamiento para un cementerio que se dice saturado, acarreando tierra hasta el lugar con el fin de prolongar el uso sepulcral de Legaño mientras se levanta un nuevo camposanto en otro emplazamiento.

El recinto de la capilla, por su parte, también terminó cumpliendo funciones inhumatorias. Sobresale a ese respecto la sepultura que se construye sobre el eje medio de dicha capilla. Su construcción, así como la presencia de la estructura encajonada señalan espacios de privilegio en el cementerio de Legaño. Este hecho supone sin duda una novedad frente a lo que conocemos de la mayoría de los cementerios intraeclesiásticos precedentes, donde la mayor o menor relevancia social y económica de los sepultados no resultaba tan evidente para sus contemporáneos, al menos a partir de las características físicas que mostraban los modelos sepulcrales al uso. También el hecho de trasladar el cementerio a Legaño denota nuevas actitudes ante lo funerario, puesto que permite constatar el destierro de los muertos. Hasta este momento, vivos y muertos han compartido espacio durante mucho tiempo, primero en el interior de la iglesia, después, durante las primeras décadas del siglo XIX, en recintos adosados a los muros exteriores de la parroquia.

Proseguir la evaluación arqueológica de este cementerio en años venideros resulta sin duda interesante, primero porque tendremos ocasión de ahondar aún más en sus características, y segundo, porque nos permitirá incidir en una etapa cementerial poco conocida y explorada hasta el presente en Bizkaia. La presencia de la estructura encajonada en Legaño, heredera directa de uno de los modelos de cementerios intraeclesiásticos más habituales del siglo XVIII, y antecesora de las tumbas de obra habilitadas en el nuevo camposanto municipal de 1890, así como la organización de la necrópolis en dos sectores diferenciados, anticipo de los que será modelo habitual para este tipo de recintos en años posteriores, no sólo incita a evaluar estos exponentes de la manifestación funeraria, sino que nos obliga a mirar hacia los estadios que aún quedan inexplorados en la biografía del cementerio cristiano, representados en el caso de Berriz por el cementerio que ocupó el suelo interior de la iglesia y

zorua okupatu zuen hilerriak eta elizaz kanpoko lehenengo instalazioak, XIX. mendearen lehenengo erdialdean parrokiaren zimitorioan egokituak, irudikatzen dituzte bi eredu horiek.

Erdi Aroaren erdialdeko mendeetako nekropolia

XIX. mendeko hilerriaren aztarnak ikerlariarentzat interesgarriak baldin badira, askoz ere baliotsuagoak dira ehorzteko funtzio berari erantzuten dioten Erdi Aroaren erdialdeko mendeetako Legañoako hilerriaren inguruak. Hala eta guztiz ere, nekropoli hori nahasita ageri da gainazalaren parte batean, nahiz eta oraindik ez garen gai zehazteko zein neurritan dagoen nahasita. Baseliza eraiki zutenean eta batik bat haren orubea hilerri gisa gaitu zutenean, kaxatan antolatutako egitura eta lur emateko hilobiak eraikitzeke xedean lurzoruan induskatu zutenean, desagerrarazi egin zituzten bertan Erdi Aroaz geroztik zeuden hilobi batzuk. Elementu batzuk, bereziki eraikuntza erabilera izan zezaketenak, hilerria eraikitzeke baliatu zituzten, nola hormetan hala hilobietan. Praktika horren adierazle agerikoak dira hemeretzigarren mendeko hilobiak estaltzen dituzten lauza batzuk, Erdi Aroko estalkiaren burualdeko zuloa kontserbatzen dituztenak. Hala eta guztiz ere, haurrei lur emateko gutxienez bi hilobi ukitu gaberen testigantzak aurkitu genituen, eta beraz, baliteke indusketa arkeologikoak artean maila sakonak iritsi ez dituen eremuetan oraindik aztarna batzuk *in situ* kontserbatzea.

Aitzitik, hondakinen kanpoko aldeko eremuetan ez du eraginik izan lurpeko nahasketa horrek. 2013ko esku-hartze arkeologikoan, kanpoko espazioaren hegoaldeko sektorerako mugatua, Erdi Aroko nekropoliaren parte bat geratu da agerian, hogeiren bat hilobi.

Zoruan egindako hobien eredura doitzen dira hilobi guztiak, denak ekialdetik mendebaldera egokituak, burualdea mendebaldera. Hobiaren burualdearen eta oinaren mugak bertikalean paratutako harri xabalez gaineztatuta egon ohi ziren beti. Hobiaren beste alboak antolatzeko moduan nabari dira aldeak, albo horiek harriz sendotuta egon daitezkeelako edo ez, eta harriz sendotuta egotera, erabat sendotuta egon daitezkeelako edo soilik hein batean. Bestalde, alboetako harriak bertikalean edo horizontalean jarri zitzaizkaten, eta horizontalean jarriz gero horma txikiak eratzen zituzten.

Erabilitako estalkiek ere aukera ematen dute hilobien artean aldeak bereizteko. Zenbaitetan, neurri ertaineko hainbat lauzek, eskuarki hiru edo lau lauzek, estaltzen dute hilobiaren azalera. Beste kasu batzuetan, elementu bakarrak eratzen du estalkia, burualdean piezaren lodiera alderik alde igarotzen duen zulo zirkularrekin hornituriko lauza monolitiko handi bakarrak edo sarkofago baten estalkiak, bertako bi hilobitan ikus daitezkeenez. Azken eredu hori berrikuntza da Bizkaiko Erdi Aroko nekropolietan. Hilobi batzuk zenduak omentzeko hilarri inskripzio eta dekoraziorik gabeez seinalatuta daude. Nola helduei hala haurrei lur emateko hobiak dokumentatu ditugu, eta nekropolian ebaluatutako sektorean bederen antolamendu berezi baten arabera egokituta ez daudela esan behar dugu.

por la primera instalación extraeclesial, alojada en el pórtico de la parroquial durante la primera mitad del siglo XIX.

Una necrópolis de los siglos centrales de la Edad Media

Pero si las evidencias cementeriales del siglo XIX resultan de interés para el investigador, mucho más valiosas son aquellas que refieren esa misma función sepulcral para el paraje de Legaño en los siglos centrales del medievo. Esta necrópolis, no obstante, se nos presenta alterada en una parte de su superficie, si bien no somos capaces de evaluar por el momento el porcentaje de tal alteración. La construcción de la ermita y, sobre todo, la posterior habilitación de su solar como cementerio, con la excavación del suelo para construir la estructura encajonada y abrir las fosas de inhumación, anuló parte de los referentes sepulcrales medievales allí emplazados. Algunos de esos elementos, en especial aquellos que tenían un uso constructivo, fueron incorporados a las obras de fábrica del cementerio, tanto en paredes como en el encajonado. Testimonio elocuente de tal práctica son algunas de las losas de cierre de las sepulturas decimonónicas, que conservan el orificio de cabecera de la cubierta medieval que se utilizó para labrarlas. Sin embargo, se han encontrado testimonios de al menos dos sepulturas infantiles intactas, quedando la posibilidad de que resten aún algunas evidencias *in situ* en aquellas zonas donde la exploración arqueológica no ha alcanzado todavía cotas profundas.

Esa alteración del subsuelo no afecta, por el contrario, a las áreas que quedan en el exterior de las ruinas. La actuación arqueológica del año 2013, centrada sobre el sector sur de ese espacio exterior, ha revelado una parte de la necrópolis medieval, exhumando una veintena de sepulturas.

Todas las sepulturas se ajustan al modelo de fosas abiertas en la tierra, con eje orientado en sentido este-oeste, disponiendo la cabecera al oeste. También resulta común que forren siempre con lajas verticales los límites de la cabecera y pies de la fosa. Las diferencias se acusan en la manera de componer los otros laterales de la tumba, porque éstos pueden o no tener refuerzo de piedras, y, en el caso de tenerlo, dicho refuerzo puede ser total o parcial. Por otra parte, las piedras en estos laterales pueden colocarse de manera vertical u horizontal, en este caso llegando a componer pequeños muros.

Las cubiertas utilizadas también permiten encontrar diferencias entre las sepulturas. En unos casos, varias losas de mediano tamaño, generalmente tres o cuatro, cubren la superficie de la tumba. En otros, la cubierta se consigue con un único elemento, bien una gran losa monolítica, dotada de una perforación circular en la cabecera, que atraviesa el espesor de la pieza, bien la tapa de un sarcófago, situación que sucede en dos sepulturas y que constituye una novedad entre las necrópolis medievales vizcaínas. En ocasiones, algunos de los enterramientos aparecen señalados con hitos conmemorativos desprovistos de inscripciones y decoración. Se han documentado tanto enterramientos de individuos adultos como de infantiles, sin que se ajusten a una ordenación específica dentro del sector evaluado de la necrópolis.



Legañoko Erdi Aroko nekropoliko estalkien mailaren ikuspegi orokorra.

Vista general del nivel de cubiertas en la necrópolis medieval de Legaño.

Tamalez, ez dira hobiratuen hezur hondakinak kontserbatu, segur asko leku egiten zien zoru buztintsuaren azidotasanak desintegratuta daude. Zirkunstantzia horrek informazio garrantzitsuak ebasten dizkio ikerlariari, gizaki haien ezaugarri fisikoak ezagutzeko eta hezurren analisi biokimikoek eskainitako datuak (biztanleen genetika eta euren elikadura) edukitzeko aukera ezerezean uzten baitu. Baina zirkunstantzia horrek batez ere ezinezko egiten du nekropoliko hileta unitateak zuzenean datatzeko aukera, ez baitugu nekropolia erabiliko zuten uneetara hurbiltzeko moduko kultura materialaren elementurik berreskuratatu.

Beste berriemaile kronologikorik ezean, datak badiuzten inguruko hilerrietako hilobien tipologiarekin erkatuta baizik ezin dugu kontu hori argitu. Zentzu honetan, Momoitioko (Garai) nekropolian bilatu behar dugu eredurik hurbilena. Momoitiokoa IX. eta XII. mendeko bitartean erabili zuten, eta Legañoeko hilobiek ezaugarri batzuk partekatzen dituzte Momoitioko hilobiekin, zehazki burualdean zulatutako estalki monolitikoak, izan ere, elementu horixe da Oiz mendiaren esparruan aurkitutako nekropolien ezaugarri nagusietako bat.

Berrizko San Pedro aztarnategian orain arte dokumentatutako aztarnak Erdi Aroko nahiz XIX. mendeko hilerri izaerakoak diren arren, leku hau hobe ezagutzeko lanean jarraitu behar da inolaz ere, itxura guztien arabera informazio berriak eskainiko baitituzte gure iragana berreskuratuzeko lanean.

Lamentablemente no se conservan los restos óseos de los sepultados, previsiblemente desintegrados por la acidez del suelo arcilloso que los envolvió. Esta circunstancia resta importantes informaciones al investigador, puesto que anula la posibilidad de conocer tanto las características físicas de aquella población, como los datos aportados por los análisis bioquímicos de los huesos (genética de las poblaciones o reconstrucción de la dieta). Pero sobre todo imposibilita la datación directa de las unidades funerarias de la necrópolis, puesto que tampoco se han recuperado elementos de cultura material que permitan aproximar los momentos en los que pudo utilizarse la necrópolis.

Privados de otros informadores cronológicos, queda esta cuestión al arbitrio de las comparaciones tipológicas con otros cementerios del entorno que disponen de fechaciones. En este sentido, el paralelo más cercano hay que buscarlo en la necrópolis de Momoitio (Garai), activa entre los siglos IX y XII, con la que Legaño comparte algunas características sepulcrales, en concreto las cubiertas monolíticas horadadas en la cabecera, uno de los elementos que singulariza a las necrópolis localizadas en el marco espacial del monte Oiz.

Aunque las evidencias documentadas en el yacimiento de San Pedro de Berriz sean por el momento de índole cementerial, tanto para el medievo, como para el siglo XIX, ello no resta interés al hecho de proseguir y ahondar en el conocimiento de este emplazamiento, porque parece seguro que sumará nuevas informaciones a la tarea de reconstruir nuestro pasado.